

ESKU-HUSKA. Oinatz Bengoetxeak garaipenarekin ekin zion profesionaltasunaren bideari

Unanueren joko erauntsia

Barriola menderatu zuen T5 katearen lau t'erdiko Torneoan, erakustaldi aparta egin ostean

BARRIOLA	17
UNANUE	22

Iraupena: 70 minutu.

Saketik: Barriolak 2, Unanuek 6.

Markagailua: 0-2, 1-2, 1-6, 5-6, 5-7, 6-7, 7-7, 8-8, 8-10, 9-10, 9-12, 10-12, 10-14, 11-14, 11-16, 12-16, 12-20, 15-20, 15-21, 17-21, 17-22.

Bestelakoak: Jende ugari Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Gorka Erostarbe | **DONOSTIA**

Tamaina hartua dio Mikel Unanuek kaiolari, T5en Torneoari batez ere. Lehiaketa horretan jokaturiko partida bakar bat ere ez du galdu lau urtetan. Lehen biak irabazi egin zituen, iaz lezio bat zela kausa ezin izan zuen bere txapela defendatu, eta atzo, aurtengo finalerako txartela eskuratu zuen Barriolaren aurka aparteko lehia jokatu. Badu Unanuek sen berezi bat lau t'erdian jokatzeko. Ederki irakurtzen ditu bai tantoak baita partidak ere. Atzo, behin eta berriro igarri zizkion Barriolari bere asmoak, eta kasurik gehienetan aurreratu egiten zitzaion ekimena hartzera-ko orduan, gisa horretan presio eta erritmo handia ezarri. Barriolak, dituen gaitasun fisiko ikaragarriengatik, eutsi ahal izan zion Unanueren joko erauntsiari, baina ez zuen aurrea hartzerik izan partida osoan zehar.

Hasieratik alde egitea lortu zuen Unanuek, lehen zatian lau tanto egin baitzizkion sakearen bitartez. Apurka, Barriola asen-



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Oinatz Bengoetxeak partida txukuna osatu zuen bere debut egunean.

tatuz joan zen eta markagailuan hurbiltzea ere erdietsi zuen (8-8). Lehiako bigarren herenean joko ikusgarria egin zuten nola donostiarrak hala leitzarrek ere. Erritmo biziko tanto pilotatu ugari jokatu zituzten tarte horretan. Unanuek airez sartzea lortzen zuen, eta alderik alde zerabilen Barriola. Horrek azkenean etsi egin behar izaten zuen erritmo horren aurrean. Gantxoak eta ezker hormara zokoraturiko pilotakadez egindako tantoak 12-20 aurreratu zuen Unanue, alde polita lortuz. Azken aldera Barriola hurbildu bazitzaion ere, ga-

raipena eta, bidenabar, finale-rako txartela poltsikoratu zituen. Finala Patxi Ruizen aurka jokatu du heldu den larunbatean, Iskar herrian.

Bengoetxea VI.aren debut itxaropentsua

Lau t'erdikoaren aurretik, pilotazale askok itxarondako debuta izan zen; Oinatz Bengoetxearena hain zuzen ere. Aurkari-egindako partida kaxkarrak distira kendu zion Bengoetxea VI.ak profesional-letan jokaturiko estreinako neurketari. Hala ere, Leitzako pilotari gaztea oso txukun aritu

zen eta Peñagarikano atzelariaren laguntzaz 22-11 menderatu zituzten Esain eta Pinedo. Bengoetxea VI.ak lotsarik gabe jokatu zuen. Aurrean aukera izan zuenean tantoa egiten saiatu zen eta gantxo, sotamano nahiz dejadak gauzatu zituen. Orotara bederatzi tanto egin zituen. Lehia amaitzean egindako lanarekin gustura zela adierazi zuen pilotari gazteak: «Lasai jardun dut eta gauzak ondo ateratzen zaizkigu. Oinak lurrean ditut eta urratsez urrats egin nahi dut aurrera. Profesionaltasunaren bidea ez da erraza, baina saiaturik naiz».

ZESTA-PUNTA. Konpa-Aranburu gaingitu zituzten (35-24) eta finalerdietatik oso gertu dira zumaiarrak

Goikoetxeak eta Enbilek eskuratu dute Munduko Txapelketako lehen puntua

Gorka Erostarbe | **DONOSTIA**

Ostiral gauean jokatu zen XII. Munduko Txapelketako lehen partida Donostiako Carmelo Baldan. Goikoetxea eta Enbil zumaiarrek osaturiko bikoteak Konpa eta Aranburuk osatutakoa gaingitu zuen 35-24, eta horrenbestez, lehen puntua eskuratu zuten.

Hasieran norgehiagoka berdindua izan bazen ere, pixkana-pixkana beraien nagusitasuna erakusten hasi ziren Goikoe-

txea eta Enbil. 14-5 aurreratu ziren aurrea eta 19-9 ondoren. Pilota indar handiagoz astindu zuten eta aurkari-ekin ezin izan zuten erritmo hori jasan. Hiru bikotez osaturiko hiru multzotan banaturik dago txapelketa. Beraz, puntu bat lortuz finalerdietatik hurbil dira zumaiarrak.

Atzo gauean jokatu zen txapelketako bigarren jardunaldia. Bi partida ziren jokatzekoak: A. Arriaga-Barrondo / Alberdi I.a-Osa eta Bereikua-Goitia / Alberdi II.a-J.Arriaga.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Gotzon Enbil aurreko partida batean.

JAIALDIAK

ATZOKO EMAITZAK

ZALDIBIA.

Galarza V.a-Sukia 14 / Barberito VI.a-Hirigoien 22. Titin III.a-Goñi III.a 22 / Goñi II.a-Lasa III.a 19.

IRUÑEA.

Esain-Pinedo 11 / Bengoetxea VI.a-Peñagarikano 22. Barriola 17 / Unanue 22.

EUSKAL.

Iturralde-Reclusa 40 / Larrea-Amenabar 37. Bereziartua-Eizaguirre 40 / Agirresarobe-Etxabe 37. Elizalde-Badiola 37 / Matxin-J. Etxeberria 40.

GALARRETA. 16:00.

Martinez-Barrenetxea 15; Juaristi-Lander 35. Zeberio II.a-Aizpuru 35; Iñigo-Lizaso 40. Kalonge-Txikuri 40; Bitoria-Auzmendi 35. Iribarren-Mendizabal 30; Matxin III.a-Urko 16.

GAURKO PARTIDAK

ETXARRI-ARANATZ. 18:00.

Gonzalez-Arroyo II.a / Chafee-Imaz. Titin III.a-Berna / Xala-Lasa III.a.

GERNIKA. 17:00.

Zearra-Pascual (Lau t'erdiko txapelketako aurreko txapeldunak). Nagore-Armendariz / Berasaluze VIII.a-Errasti.

GALARRETA. 16:00

Uterga-Lander / Ziganda-Amenabar. Bitoria-Eizaguirre / Altuna I.a-Urko. Urretabizkaia anaiak / Sarasua-Auzmendi Zeberio I.a-Ekiza. / Iribarren-Badiola

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g ARRASATE
Tel.: 943 797 564

Km 00

FOCUS
.....14i - 3 atekoa

FOCUS
.....18 TDi - 3 atekoa

FOCUS
.....16-SW

MONDEO
.....TDi 115 - 4 atekoa(3)

MONDEO
.....TDCI 130 - SW

FIESTA
.....13i - 5 atekoa

FIESTA
.....TDCI - 5 atekoa(2)

DENAK 2002KOAK